

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

José Ramón López de Aberasturi Agirrerren oinordekoei jakinaraztea Alkatetzaren 2016ko uz- tailaren 18ko 146/2016 Ebazpena

Bat etorri azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, administrazio publikoen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 59.5 artikuluan xedatutakoarekin, bi aldiz saiakera egin arren bere helbide ezagunean ezin izan zaionez interesdunari jakinarazi posta arruntez jaso izanarekin, tartean egon ez delarik udal honi egotz dakioken arrazoirik, jakinarazpena egingo da iragarkia BOEn eta ALHAOn argitaratuz eta haren azken helbideko udaleko iragarki oholean jarri.

Halaber, eta lege beraren 61. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, ikusita iragarki bidez jakinarazteak edo egintza argitarazteak kalte egin diezaiekeela bidezko eskubide edo interesei, interesdunak Donemiliagako udalean Andia kalea, 9, Erdoña agertu ahal izango dira 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera, hamabost eguneko epean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izenburuan eta espedienteko agirietan aipatzen den egintzaren eduki osoaren berri izateko eta haren jakitun direla jasota gera dadin.

Interesdunei ohartarazten zaie aipatutako epean agertu ezean, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko dela legezko ondorio guztietarako, agertzeko emandako epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hartzailea: José Ramón López de Aberasturi Agirrerren oinordekoak.

Ebazpenaren data: alkatearen uztailaren 18ko 146/2016 Ebazpena.

Ebazpenaren edukia:

“LEHENENGOA. Obra hauek egiteko agintzea:

- Lurzatiko landaredia garbitzea.
- Eraitsi eta desmuntatzea hondatuta eta erortzeko arriskuan dauden fatxada zatiak.
- Fatxada adreilu lanez ixtea, ura sartzeko eragozteko moduan, beste fatxaden akabera berarekin (zarpiatzea eta margotzea).
- Estalkia konpontzea, hondatutako elementuak bere onera ekarriz, gapirioak, teilak eta habeak, behar izanez gero.
- Eraiste hondakinak baimendutako zabortege batera eramatea.
- Aldamioak muntatu eta desmuntatzea.

Hirigintza obra hauek eginarazteko aginduaren proposamenak 2/2006 Legearen, lurzoru eta hirigintzarenaren, 199. artikuluan du oinarria, zeinaren arabera lursail, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra, eta behar diren kontserbatze eta birgaitze lanak eta obrak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko; izan ere eraikinak eta lurzatiak, ez dituzte mantentzen baldintzak osasunean (ez da iragazgaitza, hau da, ez du eragozten kanpoko ura sartzeko, eta sastraka dago), segurtasunean (materialak erortzeko arriskua) eta begirune publikoan.

BIGARRENA. Bi hilabeteko epea ezartzea Txintxetruko 3. poligonoko 40. eraikin eta lurzatiko fatxada eraberritzeko, estalkia konpontzeko eta eraiste hondakinak eta sastrakak kentzeko.

HIRUGARRENA. Lan hauek eginarazteko aginduaren proposamena jakinaraztea 40. eraikina-
ren eta lurzatiaren jabeari eta/edo jabeei, hamabost (15) egun naturaleko epea ematen zaielarik
beharrezko jotzen dituzten alegazioak, justifikazioak eta agiriak aurkezteko. "

Bat etorri azaroaren 23ko 30/1992 Legearen 84.1 artikularekin, Txintxetruko 3. poligonoko
40. eraikin eta lurzatiko fatxada eraberritzeko, estalkia konpontzeko eta eraiste hondakinak
eta sastrakak kentzeko lanak eginarazteko aginduaren proposamena jakinaraztea jabeei, José
Ramón López de Aberasturi Agirreren oinordekoei, hamabost (15) eguneko epean aukera izan
dezaten beren eskubideen alde egoki jotzen dituzten alegazio, justifikazio eta agiriak aurkezteko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da

Erdoña, 2016ko urriaren 27a

Alkatea

DAVID LOPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO